

EAEko AUZITEGI NAGUSIKO GOBERNU SALAREN BATZORDEAK 2024KO ABENDUAREN 20AN HARTUTAKO ERABAKIAK

BERTARATUAK:

Presidente jauna

Ignacio Jose Subijana Zunzunegui jauna

Jaun-andreak

Luis Angel Garrido Bengoechea jauna

Maria Mercedes Guerrero Romeo andrea

Reyes Goenaga Olaizola andrea

Alfonso Alvarez-Buylla Naharro jauna

Emilio Lamo de Espinosa Vazquez de Sola jauna

Ignacio Sanchez Moran jauna

Aner Uriarte Codon jauna

Gobernu-idazkari andrea:

Blanca Rosa Barbero Blanco

LEHENENGOA.- AURREKO BILERAREN AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.

Irakurri ondoren, aho batez onartu da.

BIGARRENA.- AURREKO BILERAN HARTUTAKO ERABAKIAK BETETZEA.

Aurreko bileran hartutako erabakiak bete direla jakinarazi zaio Salari

ERABAKIAK

1.- Magistratuak eta epaileak

1.1 VITORIA-GASTEIZKO LEHEN AUZIALDIKO ETA MERKATARITZA-ARLOKO EPAITEGIETAKO EPAILEEN BATZAR SEKTORIALA

Vitoria-Gasteizko Lehen Auzialdiko eta Merkataritza-arloko epaitegietako Epaileen Batzar Sektorialak 2024/11/28an egindako aktaren berri eman zaio Salari. Hauxe dio, hitzez hitz:

"Adierazitako egunean, Epaileen Batzarra egin zen, Vitoria-Gasteizko Lehen Auzialdiko eta Merkataritza-arloko Epaitegietako magistratu hauek bertan zirela: Ana Urrea Martinez andrea, Lehen Auzialdiko 1 zk.ko epaitegiko epaile magistratua, idazkari lanak egiten dituen.

Ana Gomez Gonzalez andrea, Lehen Auzialdiko 3 zk.ko epaitegiko epaile magistratua, Monica Basurto Garrido andrea, Lehen Auzialdiko 4 zk.ko epaitegiko magistratu titularra, Jose Luis Nuñez Corral jauna, Lehen Auzialdiko 5 zenbakiko epaitegiko magistratua, Susana Diez Martinez de Lahidalga andrea, Lehen Auzialdiko 6 zk.ko epaitegiko magistratua, Cristina Navarro Gil andrea, Lehen Auzialdiko 8 zk.ko epaitegiko magistratua, Maria Jimenez Ramirez andrea, Lehen Auzialdiko 9 zk.ko epaitegiko magistratua, Ignacio Sanchez Moran jauna ere bertan da, Lan-arloko 3 zk.ko epaitegiko magistratua eta magistratu dekanoa.

Ez dira bertaratu:

M.^a Teresa Trinidad Santos andrea, Lehen Auzialdiko 7 zk.ko epaitegiko eta Merkataritza-arloko 1 zk.ko epaitegiko magistratua, zeinek botoa Lehen Auzialdiko 9 zk.ko epaitegiko epaile magistratu Maria Jimenez Ramirez andrearen esku utzi baitu.

Francisco Javier Pablo Pablo jauna, Lehen Auzialdiko 2 zk.ko epaitegiko magistratua, zeinek botoa Lehen Auzialdiko 9 zk.ko epaitegiko epaile magistratu Maria Jimenez Ramirez andrearen esku utzi baitu.

LEHENENGOA. - Gai-zerrendako lehenengo puntuari dagokionez:

Lehen Auzialdiko 4 eta 8 zenbakiko epaitegietan erreten zibilaren ordezkpena, Jose Luis Nuñez Corral jaunak, Gasteizko Lehen Auzialdiko 5 zk.ko Epaitegiko magistratuak, egindako proposamen hau aztertu eta bozkatzea:

«Borondatezko ordezpenen kasuetan izan ezik, Lehen Auzialdiko 1., 2., 3., 5., 6., 7. eta 9. zenbakiko magistratuak, kontrakorik adierazten ez badute, ez dute inolako eginbiderik burutuko erreten gisa Lehen Auzialdiko 4. eta 8. zenbakiko epaitegietan, baldin eta epaitegi horietako titularrek beren gauzetarako hiru eguneko baimena badute barneratzeen eta ezintasunen guardia dagokien hilabeteetan.

Adierazitako epaitegi horietako titularrak, barneratzeen eta ezintasunen guardia horretan daudenean, elkarren artean ordezkatzuko dira haietako bat guardia-aldi horretan zerbitzuak ematen ari denean eta norberaren eginkizunetarako hiru eguneko baimena lortzen duenean, eta inolako erretetik ez du zerbitzuaren beharrak beteko, EAEANko Gobernu Salak aurreikusitako ordezkpen-kasuetan izan ezik.»

Lehen Auzialdiko 4 zk.ko epaitegiko magistratuak proposamenaren sustatzaileari galdetu dio zergatik proposatu duen. Lehen Auzialdiko 5 zk.ko epaitegiko magistratuak adierazi du, bere ustez, Lehen Auzialdiko 4 eta 8 zenbakiko epaitegiek barneratzeen eta/edo ezintasunen guardiak egiten dituztenez, epaitegi horietako titularrek elkarren artean ordezkatu behar dutela. Titularretako batek hiru eguneko baimena eskatzen badu, haren legezko ordezkioak ordezkatu beharko du, eta hura gaixorik edo ezinduta badago, erreten sistema eta/edo ordezkio epailea erabiliko du barne-ordezpena aurreikusten bada.

Egindako galderari erantzun zaio.

Proposatutako neurria bozkatu da, eta emaitza hau izan da:

- Ana Urrea Martinez andreak, Lehen Auzialdiko 1 zk.ko epaitegiko magistratuak, aldeko botoa eman du.

- Francisco Javier Pablo Pablo jaunak, Lehen Auzialdiko 2 zk.ko epaitegiko magistratuak, zeinek botoa Lehen Auzialdiko 9 zk.ko epaitegiko magistratu titular Maria Jimenez Ramirez andrearen esku utzi baitu, aldeko botoa eman du.

- Ana Gomez Gonzalez andreak, Lehen auzialdiko 1 zk.ko epaitegiko magistratuak, aldeko botoa eman du.

- Monica Basurto Garrido andreak, Lehen Auzialdiko 4 zk.ko epaitegiko magistratuak, aurkako botoa eman du eta boto partikularra iragarri.

- Jose Luis Nuñez Corral jaunak, Lehen Auzialdiko 5 zk.ko epaitegiko magistratua denak, aldeko botoa eman du.

- Susana Diez Martinez de Lahidalga andreak, Lehen Auzialdiko 1 zk.ko epaitegiko magistratuak, kontrako botoa eman du.

- M.^a Teresa Trinidad Santos andrea, Lehen Auzialdiko 7 zk.ko epaitegiko eta Merkataritza-arloko 1 zk.ko epaitegiko magistratua, zeinek botoa Lehen Auzialdiko 9 zk.ko epaitegiko magistratu titular Maria Jimenez Ramirez andrearen esku utzi baitu, ez du botorik eman.

- Cristina Navarro Gil andreak, Lehen Auzialdiko 8 zk.ko epaitegiko magistratuak, aurkako botoa eman du eta boto partikularra iragarri.

- Maria Jimenez Ramirez andreak, Lehen Auzialdiko 9 zk.ko epaitegiko magistratu titularrak, aldeko botoa eman du.

- Ignacio Sanchez Moran jauna, Lan-arloko 3 zenbakiko epaitegiko magistratua eta magistratu dekanoa, abstentitu egin da.

Proposamenaren aldeko bost boto, kontrako bi boto eta bi abstentzio lortu dira. Proposamena gehiengoz onartu da.

Jasota geratu da Lehen Auzialdiko 4 eta 8 zenbakiko epaitegietako magistratuek boto partikularra emango dutela iragarri dutela.

BIGARRENA.- Galde-eskeak.

Ez dago galde-eskerik.

Batzarrak horren guztiaren berri izan du eta akta hau onartu du.»

Jarraian, Vitoria-Gasteizko Magistratu Dekanoaren 2024/12/03ko Argitze Gobernu-erabakiaren berri eman zaio Salari. Honela dio hitzez hitz:

"Cristina Navarro Gil andreak, Vitoria-Gasteizko Lehen Auzialdiko 8 zenbakiko epaitegiko epaile magistratuak jakitera eman du Lehen Auzialdiko eta Merkataritza-arloko Epaileen Batzarrak 2024ko azaroaren 28an egindako aktan (634/2024 zk.), gai-zerrendako lehen puntuko bozketaren emaitzan ageri dela kontrako botoak bi direla, baina hiru dira. Horrenbestez,

ARGITU BEHAR DA:

Honako hau dio gai-zerrendako lehen puntuan:

Proposamenaren aldeko bost boto, kontrako bi boto eta bi abstentzio lortu dira. Proposamena gehiengoz onartu da.

Hau jarri behar du:

Proposamenaren aldeko bost boto, aurkako hiru boto eta bi abstentzio lortu dira. Proposamena gehiengoz onartu da.»

Jarraian, Salari jakinarazi zaio Gasteizko Lehen Auzialdiko 4. eta 8. zk.ko Epaitegiko magistratu titularrek boto partikularrak eman dituztela, batzar sektorialaren bilkuran iragarri bezala.

Azkenik, Cristina Navarro Gil andreak, Vitoria-Gasteizko Lehen Auzialdiko 8 zk.ko epaitegiko epaile magistratuak, aurkeztutako idazkiaren berri eman zaio Salari. Idazki horretan, honako gai hau planteatu zaio Salari:

"1.- 2024ko azaroaren 28an, Vitoria-Gasteizko Lehen Auzialdiko eta Merkataritza-arloko Epaileen Batzar Sektorial bat egin zen, eta, bertan, gehiengoz, honako erabaki hau hartu zen:

«Borondatezko ordezkpenen kasuetan izan ezik, Lehen Auzialdiko 1., 2., 3., 5., 6., 7. eta 9. zenbakiko magistratuek, kontrakorik adierazten ez badute, ez dute inolako eginbiderik burutuko erreten gisa Lehen Auzialdiko 4. eta 8. zenbakiko epaitegietan, baldin eta epaitegi horietako titularrek beren gauzetarako hiru eguneko baimena badute barneratzeen eta ezintasunen guardia dagokien hilabeteetan.

Adierazitako epaitegi horietako titularrak, barneratzeen eta ezintasunen guardia horretan daudenean, elkarren artean ordezkaturako dira haietako bat guardia-aldi horretan zerbitzuak ematen ari denean eta norberaren eginkizunetarako hiru eguneko baimena lortzen duenean, eta inolako erretenik ez du zerbitzuaren beharrak beteko, EAEANko Gobernu Salak aurreikusitako ordezen-kasuetan izan ezik.»

2.- Lehen Auzialdiko 4 eta 8 zenbakiko magistratuek erabaki horren aurkako boto partikularra aurkeztu zuten 2024ko azaroaren 29an.

Onartutako akordioaren edukia kontuan hartuta, EAEko Auzitegi Nagusiko Gobernu Salari honako gai hau planteatu zaio:

- Auzitegietak gobernu-organoen 1/2000 Erregelamenduaren 71.3 artikuluan araututakoaren arabera, erabaki hori zuzenean betearazlea den.

- Edo, aldez, EAEko Auzitegi Nagusiko Gobernu Salari dagokion gaia denez, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 152.1.4. artikulua xedatutakoari jarraituz, BJLOren 200. eta 210.3. artikuluekin lotuz, (akordio horrek epaitegien arteko ordezenari eragiten dio, eta erreten-sistema aldatzen du gaur egungo funtzionamenduan), akordio hori ez den betearazlea izango EAEko Auzitegi Nagusiko Gobernu Salak onartu arte. "

Ignacio Sanchez Moran jaunak Sala utzi egin du.

Eztabaidatu ondoren, Salak bi proposamen aurkeztu ditu bozkatzeko eta eztabaidatzeko:

- Lehenengoaren arabera, Gobernu Salak ezin du bere gain hartu Gasteizko Lehen Auzialdiko eta Merkataritza-arloko Epaileen Batzarrean erabakitakoa; izan ere, ordezenen urteko plana aldatzeko proposamena da, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 152.4 artikuluan aurreikusitako eskumena erabiliz eta Botere Judizialari buruzko Lege Organikoaren 210.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Gobernu Sala honen Osoko Bilkurak behin-behinean onartu zuen, 2024ko azaroaren 22ko 1.5 Erabakiaren bidez, eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari helarazi zaio behin betiko onar dezan. Beraz, hura aldatzeko, berariaz aurreikusitako prozedurari jarraitu behar zaio: auzialdiko epaileak ordezteko planaren proposamena, gobernu-salaren osoko bilkuraren behin-behineko onarpena, hala badagokio, eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren behin betiko onarpena, hala badagokio.

- Bigarren proposamenaren arabera, Auzitegietak Gobernu Organoen 1/2000 Erregelamenduaren 71.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, Vitoria-Gasteizko Lehen Auzialdiko eta Merkataritza-arloko Epaileen Batzarrak legitimitatea du egindako proposamena egiteko, eta Gobernu Salari dagokio soilik legezkotasun-kontrol zorrotza egitea.

Lehenengo proposamenaren aldeko bost boto eta bigarrenaren aldeko bi boto lortu dira.

Salak erabaki du Vitoria-Gasteizko Lehen Auzialdiko eta Merkataritza-arloko Epaileen Batzarrak egindako proposamena ez onartzea.

Gobernu Organoen uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 71.2 artikuluekin bat etorritz, bidal bedi akta hori Botere Judizialaren Kontseilu Nagusira, jakinaren gainean egon dadin eta legezkotasuna kontrola dezan.

Ignacio Sanchez Moran jauna Salara itzuli da.

1.2 - GIPUZKOAKO PROBINTZIA AUZITEGIKO LEHEN ATALEKO MAGISTRATU-LANPOSTURAKO FUNTZIOAK ALDATUTAKO ZERBITZU-EGINKIZUNA BERRITZEKO PROPOSAMENA

Maria Jose Aguirre Zuazo magistratuak bidalitako idazkiaren berri eman zaio Salari. Horren bidez, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiaren lehen atalean betetzen ari den funtzioak aldatutako zerbitzu-eginkizuna berritzeko eskatzen du. Era berean, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko jarduneko Presidente jaunak emandako txostenaren berri ere eman zaio.

Salak erabaki du Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari eskatzea beste sei hilabetez luza dezala Maria Jose Aguirre Zuazo magistratu andrea Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko lehenengo atalean betetzen ari den funtzioak aldatutako zerbitzu-eginkizuna.

1.3 50/2024 ZK.KO ERRETIRO-ESPEDIENTEA

Gobernu Salari Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko epaile eta magistratuen araubide juridikoko zerbitzuak bidalitako komunikazioaren berri eman zaio. Komunikazio horretan, funtzio judiziala betetzeko balizko ezgaitasun-arrazoiagatik erretiro-espeditentean instruktorea izendatzeko eskatzen da.

Salak erabaki du Aner Uriarte Codon jauna izendatzea txostengile.

1.4. 2025 URTEAN BORONDATEZKO ORDEZPENA EGITEKO ESKAERA

Luis Angel Garrido Bengoechea jaunak eta Antonio Iglesias Martin jaunak (biak Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salako magistratuak) aurkeztutako eskaeren berri eman zaio Salari, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salako ordezipenen urteko planean borondatez parte hartzeko, eta planean sartzeko eskatu dute.

Alfonso Alvarez-Buylla Naharro jaunak, Bilboko Administrazioarekiko Auzietako 5 zenbakiko epaitegiko magistratuak, eta Amaia del Cid Madariaga andreak, Bilboko Lehen Auzialdiko 15 zenbakiko epaitegiko magistratuak, aurkeztutako eskaeren berri eman zaio Salari; horien bidez, Bilboko Lehen Auzialdiko epaitegietako urteko ordezipen-planean borondatez parte hartzeko eskaerak zabaldu dituzte.

Salak erabaki du eskaerak aurkeztutzat ematea, bertan zehaztutako moduan, eta behin-behinean onartzea, bai eta BJKNra bidaltzea ere, BJLOko 210.3 artikuluan aurreikusitako ondoretarako.

1.5 AKORDIOA BERRESTEA, BJLOREN 160.7 ARTIKULUA, ARABAKO PROBINTZIA AUZITEGIKO LEHENDAKARITZA BETETZEKO DEIALDIARI BURUZKOA

Salak aho batez erabaki du presidente jaunak 2024ko abenduaren 12an hartutako erabakia berrestea, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluekin bat, presako arrazoiei dagokienez, honela dioena hitzez hitz:

"Kontu eman da: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Kalifikazio Atalaren aurreko jakinarazpena jaso dugu; horren bidez, auzitegi nagusi honetako gobernu-salari txostena eskatzen dio, Arabako Probintzia Auzitegiako lehendakaritza betetzeko deialdiaren ondorioetarako. Erregistra bedi.

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluan presazko arrazoiei buruz ezarritakoarekin bat etorriz, honako hau jakinaraztea erabaki da:

1.- XXXXXXXX(e)k funtzioak aldatu gabeko zerbitzu-eginkizunetan jardun zuen, merkataritza-arloan eskumena duen Vitoria-Gasteizko Lehen auzialdiko 7 zk.ko epaitegia indartzeko, 2014ko martxoaren 14tik 2017ko apirilaren 30era arte, etenik gabe.

2006. urteaz geroztik, funtzio judizialak bete ditu Autonomia Erkidego honetan, destino hauetan:

. Vitoria-Gasteizko Lehen Auzialdiko 5 zenbakiko epaitegia, 2006ko martxoaren 17tik gaur arte.

Vitoria-Gasteizko epaitegietako magistratu-dekanoaren kargua bete zuen 2008ko apirilaren 19tik 2020ko abenduaren 31ra bitartean.

Auzitegi Nagusi honen lurralde-eremuan magistratu gisa emandako denboran normaltasun osoz jardun du lanean, eta ez dago jasota atzerapenagatik edo disfuntzioagatik diziplinazko ikerketa irekitzea eragin duen kexarik edo erreklamaziorik egon denik.

Eskualdeko hauteskunde batzordeko kide judizial izendatu zuten 2015eko udal-hauteskundeetan eta Batzar Nagusietarako hauteskundeetan.

Auzitegi Nagusi honetako Gobernu Salako bokal gisa sartu zen 2009ko azaroaren 27an, 2015eko azaroaren 27an berritu zen arte.

Gobernu-salako kide gisa txostengile izan da txandaren arabera egokitu zaionean, eta bere lana dedikazioz eta arduraz egin du.

Jakinaraz bekio erabaki hau Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Kalifikazio Atalari, eta eman bedi honen berri Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu Salak egingo duen hurrengo bileran."

1.6 AKORDIOA BERRESTEA, BJLOREN 160.7 ARTIKULUA, ARABAKO PROBINTZIA AUZITEGIKO LEHENDAKARITZA BETETZEKO DEIALDIARI BURUZKOA

Salak aho batez erabaki du presidente jaunak 2024ko abenduaren 12an hartutako erabakia berrestea, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluekin bat, presako arrazoiei dagokienez, honela dioena hitzez hitz:

"Kontu eman da: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Kalifikazio Atalaren aurreko jakinarazpena jaso dugu; horren bidez, auzitegi nagusi honetako gobernu-salari txostena eskatzen dio, Arabako Probintzia Auzitegiako lehendakaritza betetzeko deialdiaren ondorioetarako. Erregistra bedi.

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluan presazko arrazoiei buruz ezarritakoarekin bat etorriz, honako hau jakinaraztea erabaki da:

1.- XXXXXXXX(e)k funtzioak aldatutako zerbitzu-eginkizunetan jardun zuen, Arabako Probintzia Auzitegiako bigarren ataleko magistratu karguan, 2014ko apirilaren 14tik 2014ko abenduaren 30era arte; 2015eko apirilaren 16an, organo horretako bigarren ataleko magistratu titular karguaz jabetu zen, eta gaur egun lanpostu horretan jarraitzen du.

1998. urteaz geroztik, funtzio judizialak bete ditu Euskal Autonomia Erkidegoan, honako destino hauetan:

. 2001eko urriaren 30etik 2015eko apirilaren 11ra, Vitoria-Gasteizko Zigor-arloko 2 zenbakiko epaitegian.

Auzitegi Nagusi honen lurralde-eremuan magistratu gisa emandako denboran normaltasun osoz jardun du lanean, eta ez dago jasota atzerapenagatik edo disfuntzioagatik diziplinazko ikerketa irekitzea eragin duen kexarik edo erreklamaziorik egon denik.

Arabako Probintziako Hauteskunde Batzordeko kide izan da 2017., 2020., 2021., 2023. eta 2024. urteetan egindako hauteskunde-prozesuetan, eta Hauteskunde Batzordeko presidentea, 2024. urtean egindako Europako Parlamenturako hauteskundeetan.

Jakinaraz bekio erabaki hau Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Kalifikazio Atalari, eta eman bedi honen berri Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu Salak egingo duen hurrengo bileran."

1.7 AKORDIOA BERRESTEA, BJLOREN 160.7 ARTIKULUA, ARABAKO PROBINTZIA AUZITEGIKO LEHENDAKARITZA BETETZEKO DEIALDIARI BURUZKOA

Salak aho batez erabaki du presidente jaunak 2024ko abenduaren 12an hartutako erabakia berrestea, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluekin bat, presako arrazoiei dagokienez, honela dioena hitzez hitz:

"Kontu eman da: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Kalifikazio Atalaren aurreko jakinarazpena jaso dugu; horren bidez, auzitegi nagusi honetako gobernu-salari txostena eskatzen dio, Arabako Probintzia Auzitegiko lehendakaritza betetzeko deialdiaren ondorioetarako. Erregistra bedi.

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluan presazko arrazoiei buruz ezarritakoarekin bat etorritz, honako hau jakinaraztea erabaki da:

1.- XXXXXXXX jaunak Arabako Probintzia Auzitegiko bigarren ataleko jarduneko magistratu presidente kargua bete zuen, titularra zerbitzu berezietako administrazio-egoeran zegoen bitartean, 2021eko irailaren 10etik 2024ko irailaren 13ra arte, eta kargu hori titular gisa bete du 2024/10/1etik gaur arte.

1991. urteaz geroztik, funtzio judizialak bete ditu Euskal Autonomia Erkidegoan, honako destino hauetan:

. 1991ko martxoaren 18tik 1995eko irailaren 19ra arte, Bergarako Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 2 zenbakiko epaitegian.

. 1995eko urriaren 6tik 2001eko azaroaren 7ra, Vitoria-Gasteizko Lehen auzialdiko 5 zk.ko epaitegian.

. 2001eko azaroaren 14tik 2021eko irailaren 3ra, Arabako Probintzia Auzitegiko bigarren atalean.

Jasota geratzen da 2000ko irailaren 11tik 2001eko azaroaren 7ra bitartean Gasteizko epaitegietako magistratu dekanok kargua bete zuela.

Auzitegi Nagusi honen lurralde-eremuan magistratu gisa emandako denboran normaltasun osoz jardun du lanean, eta ez dago jasota atzerapenagatik edo disfuntzioagatik diziplinazko ikerketa irekitzea eragin duen kexarik edo erreklamaziorik egon denik.

Arabako Probintziako Hauteskunde Batzordeko kide izan da 2004, 2011, 2014, 2015 eta 2019 urteetan egindako hauteskunde-prozesuetan, eta Hauteskunde Batzordeko presidente 2003, 2005, 2009 eta 2020 urteetan egindako hauteskunde-prozesuetan.

Jakinaraz bekio erabaki hau Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Kalifikazio Atalari, eta eman bedi honen berri Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu Salak egingo duen hurrengo bileran."

1.8 AKORDIOA BERRESTEA, BJLOREN 160.7 ARTIKULUA, ARABAKO PROBINTZIA AUZITEGIKO LEHENDAKARITZA BETETZEKO DEIALDIARI BURUZKOA

Salak aho batez erabaki du presidente jaunak 2024ko abenduaren 12an hartutako erabakia berrestea, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluekin bat, presako arrazoiei dagokienez, honela dioena hitzez hitz:

"Kontu eman da: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Kalifikazio Atalaren aurreko jakinarazpena jaso dugu; horren bidez, auzitegi nagusi honetako gobernu-salari txostena eskatzen dio, Arabako Probintzia Auzitegiko lehendakaritza betetzeko deialdiaren ondorioetarako. Erregistra bedi.

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluan presazko arrazoiei buruz ezarritakoarekin bat etorritz, honako hau jakinaraztea erabaki da:

1.- XXXXXXXX(e)k funtzioak aldatutako zerbitzu-eginkizunetan jardun zuen, Arabako Probintzia Auzitegiko bigarren ataleko magistratu karguan, 2018ko abenduaren 1etik 2019ko ekainaren 28ra arte, eta, ondoren, 2021eko maiatzaren 17tik 2021eko azaroaren 5era arte, egun horretan hasi baitzen magistratu lanpostua betetzen, atal horretako titular gisa, eta gaur egun ere hala jarraitzen du.

1999. urteaz geroztik, funtzio judizialak bete ditu Euskal Autonomia Erkidegoan honako destino hauetan:

. 1999ko irailaren 6tik 2001eko irailaren 27ra, Azpeitiko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 1. zk. epaitegian.

. 2001eko azaroaren 5etik 2003ko urtarrilaren 8ra, Amurrioko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 2 zenbakiko epaitegian.

. 2003ko urtarrilaren 27tik 2004ko irailaren 2ra, Barakaldoko Instrukzioko 2 zenbakiko epaitegian.

. 2004ko urriaren 5etik 2021eko urriaren 28ra, Vitoria-Gasteizko Instrukzioko 2 zenbakiko epaitegian.

Auzitegi Nagusi honen lurralde-eremuan magistratu gisa emandako denboran normaltasun osoz jardun du lanean, eta ez dago jasota atzerapenagatik edo disfuntzioagatik diziplinazko ikerketa irekitzea eragin duen kexarik edo erreklamaziorik egon denik.

Arabako Probintziako Hauteskunde Batzordeko kide izan da, bokal judizial gisa, 2023an egindako hauteskunde orokorretan, eta Hauteskunde Batzordeko presidente urte bereko udal-hauteskundeetan.

Jakinaraz bekio erabaki hau Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Kalifikazio Atalari, eta eman bedi honen berri Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu Salak egingo duen hurrengo bileran."

1.9 AKORDIOAREN BERRESPENA, BJLOREN 160.7 ARTIKULUA, GIPUZKOAKO PROBINTZIA AUZITEGIKO LEHENDAKARITZA BETETZEKO DEIALDIARI BURUZKOA

Salak aho batez erabaki du presidente jaunak 2024ko abenduaren 12an hartutako erabakia berrestea, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluekin bat, presako arrazoiei dagokienez, honela dioena hitzez hitz:

"Kontu eman da: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Kalifikazio Atalaren aurreko jakinarazpena jaso dugu; horren bidez, auzitegi nagusi honetako gobernu-salari txostena eskatzen dio, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiako lehendakaritza betetzeko deialdiaren ondorioetarako. Erregistra bedi.

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluan presazko arrazoiei buruz ezarritakoarekin bat etorritik, honako hau jakinaraztea erabaki da:

1.- **XXXXXXX(e)k** Gipuzkoako Probintzia Auzitegiako 1. ataleko magistratu titularren kargua betetzen du 2005eko irailaren 23tik aurrera.

1999. urteaz geroztik, funtzio judizialak bete ditu Euskal Autonomia Erkidegoan honako destino hauetan:

. 1999ko irailaren 6tik 2002ko abenduaren 31ra, Irungo Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 2 zenbakiko epaitegian.

. 2003ko urtarrilaren 18tik 2005eko irailaren 20ra, Donostiako Zigor-arloko 5 zenbakiko epaitegian.

Auzitegi Nagusi honen lurralde-eremuan magistratu gisa emandako denboran normaltasun osoz jardun du lanean, eta ez dago jasota atzerapenagatik edo disfuntzioagatik diziplinazko ikerketa irekitzea eragin duen kexarik edo erreklamaziorik egon denik.

Gipuzkoako Probintziako Hauteskunde Batzordeko presidentea izan zen 2011. urteko hauteskunde orokorretan eta 2014. urteko Europako hauteskundeetan.

Jakinaraz bekio erabaki hau Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Kalifikazio Atalari, eta eman bedi honen berri Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu Salak egingo duen hurrengo bileran."

1.10 AKORDIOAREN BERRESPENA, BJLOREN 160.7 ARTIKULUA, GIPUZKOAKO PROBINTZIA AUZITEGIKO LEHENDAKARITZA BETETZEKO DEIALDIARI BURUZKOA

Salak aho batez erabaki du presidente jaunak 2024ko abenduaren 12an hartutako erabakia berrestea, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluekin bat, presako arrazoiei dagokienez, honela dioena hitzez hitz:

"Kontu eman da: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Kalifikazio Atalaren aurreko jakinarazpena jaso dugu; horren bidez, auzitegi nagusi honetako gobernu-salari txostena eskatzen dio, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiako lehendakaritza betetzeko deialdiaren ondorioetarako. Erregistra bedi.

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluan presazko arrazoiei buruz ezarritakoarekin bat etorritz, honako hau jakinaraztea erabaki da:

1.- XXXXXXXX(e)k funtzioak aldatutako zerbitzu-eginkizunetan jardun zuen, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiako lehen ataleko magistratu karguan, 2020ko maiatzaren 19tik 2001eko ekainaren 25era arte; 2001eko urtarrilaren 9an, organo horretako bigarren ataleko magistratu titular karguaz jabetu zen, funtzioak aldatutako zerbitzu-eginkizunetan, 2022ko apirilaren 12ra arte; egun horretan organo horretako lanpostuaz jabetu zen. 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiako lehen atalean betetzen du magistratu lana.

1993. urteaz geroztik, funtzio judizialak bete ditu Euskal Autonomia Erkidegoan, honako destino hauetan:

. 1993ko abuztuaren 2tik 1998ko azaroaren 12ra, Irungo Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 3 zk.ko epaitegian.

. 1998ko abenduaren 2tik 2002ko apirilaren 9ra, Donostiako Instrukzioko 1 zk.ko epaitegian.

Auzitegi Nagusi honen lurralde-eremuan magistratu gisa emandako denboran normaltasun osoz jardun du lanean, eta ez dago jasota atzerapenagatik edo disfuntzioagatik diziplinazko ikerketa irekitzea eragin duen kexarik edo erreklamaziorik egon denik.

Gipuzkoako Probintziako Hauteskunde Batzordeko kide izan da, bokal judizial gisa, 2011ko hauteskunde orokorretan eta 2020ko hauteskunde autonomikoetan.

Jakinaraz bekio erabaki hau Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Kalifikazio Atalari, eta eman bedi honen berri Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu Salak egingo duen hurrengo bileran."

1.11 EBAZTEKE DAUDEN EPAIAK EMATEKO, SINATZEKO ETA ARGITARATZEKO BAIMEN-ESKAERA

XXXXXXX andreak, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 1 zk.ko epaitegiako magistratuak, epaia emateko, sinatzeko eta argitaratzeko baimena eskatzeko bidali duen idazkiaren berri eman zaio Salari. Honela dio, hitzez hitz:

"XXXXXXX egoeran nago 2024ko urriaren 17tik. Une honetan, epaia emateko jarduerari berriro ekiteko moduan egongo nintzateke, pixkanaka, kontrolatu nezakeen erritmo batean eta egoitza judizialek eta haren erritmo arruntetik aldentzeko jarraibide medikoa urratu gabe.

BJKNren Batzorde Iraunkorraren 2021eko abenduaren 16ko Erabakiak, 1.24 Erabakiak, baimena ematen dio gaixotasunagatiko lizentzia eta baja duen magistratu bati epaiak transkribatu eta sinatzeko alta medikoa eman aurretik.

Oraindik ere gaixotasunagatiko nire bajaren egoera hilabete batzuetan luza daitekeela, eta epaiak eman eta sinatu gabe ditudala, baja baino hilabete batzuk lehenago nire mahai gainean geratu zirenak.

Nire lanpostu hutsa betetzeko izendatutako ordezeko epailea arduratzen da epaitegiaren agenda egunero eramateaz eta nire bajatik aurrera erabakitzeke geratu ziren ebazpenak emateaz.

Ez nukeela nahi nire osasun-egoerak kalte handiagoa egitea ebazteke dauden epaiak ematea espero duten justiziapekoei.

Ikuskapen Zerbitzuak, 1154/2020 zenbakiko jarraipen-espedientearen merezimenduetan Ikuskaritza Unitateak, Gobernu Sala honetara bidali nau.

Horregatik guztiagatik, honako hau ESKATZEN DUT: nire alta medikoa baino lehen ebazti gabe dauden epaiak eman, sinatu eta argitaratzeko baimena eman diezadatela. "

Salak erabaki du eskatzaileari jakinaraztea BJLOren 259. artikulua arabera ezintasunik ez duten epaile edo magistratu guztiek sinatuko dituztela epaiak, horiek emateko ezarritako epearen barruan.

1.12 BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIAREN BATZORDE IRAUNKORRAK 73. PROMOZIOKO PRAKTIKETAKO EPAILEEN IZENDAPENA, ORDEZTE- ETA INDARTZE-EGINKIZUNETARAKO ORDEZKO EPAILE GISA, LUZATZEARI BURUZ HARTUTAKO ERABAKIAREN BERRI EMATEA.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Batzorde Iraunkorrek hartutako erabakiaren berri eman zaio Salari, 73. promozioko praktiketako epaileen izendapena, ordezte- eta indartze-eginkizunetarako ordezeko epaile gisa, luzatzeari buruzkoa.

1.13 PRESIDENTE JAUNAK LURRALDE-ATXIKIPENENKO EPAILEAK IZENDATZEARI BURUZ HARTUTAKO ERABAKIAREN BERRI EMATEA.

Auzitegi Nagusi honetako presidenteak 2024ko abenduaren 4an hartutako erabakiaren berri eman zaio Salari, lurralde-atxikipeneko epailea izendatzeari buruzkoa. Honela dio, hitzez hitz:

"LURRALDE-ATXIKIPENENKO EPAILEAK IZENDATZEKO ERABAKIA "

AURREKARIAK

LEHENENGOA.- Alvaro Silvan Hernandez jauna Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko (Arabako probintzia) lurralde-atxikipeneko epaile izendatu zuten, epaileen lekualdatze-lehiaketaren bidez (2024ko azaroaren 27ko EAOn argitaratua).

BIGARRENA.- Lehiaketa deitu zen Arabako Lurralde Historikoan dauden lanpostuekin, eta lehentasun-hurrenkeraren arabera honako organoei atxikitzea eskatu zuen: Gasteizko Instrukzioko 3. zenbakiko epaitegia, Vitoria-Gasteizko Instrukzioko 1 zk.ko epaitegia, eta Vitoria-Gasteizko Lan-arloko 2 zk.ko epaitegia.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENENGOA.- Botere Judizialaren Lege Organikoaren 347 bis 2 artikulua arabera, lurralde-atxikipeneko epaileek hutsik dauden lanpostuetan edo edozein arrazoiengatik titularra falta den lanpostuetan beteko dituzte beren jurisdikzio-eginkizunak. Salbuespen gisa, erreformazionalak egiteko deitu ahal izango zaie, 5. paragrafoan ezarritako baldintzetan. Justizia Auzitegi Nagusiko presidenteak izendatuko ditu eginkizun horietarako, eta, ondoren, horren berri emango dio dagokion gobernu-salari. Gauza bera dio 2016ko azaroaren 24ko Erabakiaren bidez onartutako Lurralde Atxikipeneko Epaileen Estatutua Garatzeko Erregelamenduaren 6.1. artikulua.

BIGARRENA.- Alvaro Silvan Hernandez jaunak egindako eskaerari erantzunez, Vitoria-Gasteizko Instrukzioko 3 zk.ko epaitegiari atxiki zaio.

EBATZI DUT

LAE den Pablo Alvaro Silvan Hernandez jauna izendatzea Vitoria-Gasteizko Instrukzioko 3 zenbakiko epaitegian jurisdikzioa bete dezan, karguaz jabetzen den egunetik aipatu organo judizialeko titularra itzuli arte.

Eman bekio izendapen honen berri Gobernu Salari.

Jakinaraz bekio erabaki hau interesdunari, eta ohartarazi erabaki honen aurka errekurtoa aurkez daitekeela Epaitegietako Gobernu Organoen uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 59. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako moduan."

1.14 BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIKO BATZORDE IRAUNKORREKO LANGILE JUDIZIALEN ZERBITZUAK BIDALITAKO JAKINARAZPENAREN KONTU EMATEA, ZERBITZUAK EMATEA DELA-ETA MARIA DE PABLO GUERREROREN ALDE DIETAK ETA JOAN-ETORRIEN GASTUAK JASOTZEARI BURUZKOA

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Langile Judizialen Zerbitzuak 2024ko azaroaren 19an igorritako komunikazioaren berri eman zaio Salari. Komunikazio hori maiatzaren 24ko 462/2002 Errege Dekretuan aurreikusitakoaren arabera kalte-ordainen gaineko dietak eta lekualdatze-gastuak jasotzeari buruzkoa da, Bergarako Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 3 zk.ko Magistratua Maria de Pablo Guerreroren alde, Eibarreko Lehen auzialdiko eta instrukzioko 1 zk.ko epaitegian emandako zerbitzuengatik.

Sala jakinaren gainean dago.

1.15 BILBOKO LEHEN AUZIALDIKO 17 ZENBAKIKO EPAITEGIARI BURUZKO BILBOKO EPAILE DEKANOAREN GOBERNU-ERABAKIAREN BERRI EMATEA

Bilboko epaile-magistratu dekanoak 2024ko abenduaren 16an Bilboko Lehen Auzialdiko 17 zk.ko epaitegiari buruz hartutako erabakiaren berri eman zaio Salari. Erabakiak honako hau dio hitzez hitz:

"EAEko Auzitegi Nagusiaren Gobernu Salaren Osoko Bilkurak 2024ko abenduaren 13an egindako bileraren 1.7 puntuan erabakitakotik abiatuta, erabaki da Bilboko Lehen Auzialdiko 17 zenbakiko Epaitegiari egiten zaion banaketa, sortzen den egunetik bertatik, instantzia ez-espezializatuaren arlokoa izatea.

Horrela, ausazko banaketan sartuko da lehen auzialdiko 1 zk.tik 4 zk.ra eta 7 zk.tik 13 zk.ra arteko gainerako epaitegiekin batera, hasiera batean proportzio berean; nolana ere, batzar sektorialean erabakiko den banaketa indartu ahal izango da, 2024ko urtarrileko bigarren astean deitzeko, eta Gobernu Salak onartu ondoren, behar bezala jakinaraziko da.

Jakinaraz bekie erabaki hau Gobernu Salari, lehen auzialdiko epaitegi guztiei, Eusko Jaurlaritzako Informatika Zerbitzuari eta EJE proiektuaren arduradunari.

Eta erabaki honen bidez agindu eta sinatzen dut. "

Sala jakinaren gainean dago.

2.- Ordezko magistratuei eta ordezkoko epailei buruzkoa

2.1.- ORDEZKO EPAILEEN ETA ORDEZKO MAGISTRATUEN 2024KO ABENDUKO ORDAINSARIAK.

Ordezko magistratu eta epailei ordainsariak ordaintzeari buruz Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritza Nagusiak bidalitako komunikazioaren berri eman da. Komunikazio horretan, 431/2004 Errege Dekretuaren 5.2 artikuluan xedatutakoa betez, aditzera ematen da abenduan 263.989,6 euro ordaindu direla.

Beraz, 2024ko ekitaldian abendura arte metatutako gastua 2.082.601,3 eurokoa izan da, hau da, ordezkoko magistratu eta ordezkoko epaileen ordainsariak ordaintzeko Gobernu Sala honi urte osorako esleitutako guztizkoaren % 111,23.

Era berean, gutxi gorabehera hilean egin beharko den batez besteko gastua 156.025,9 eurokoa dela adierazi da.

Halaber, Justizia Ministerioak emandako eranskinen berri eman zaio Salari. Eranskin horiek honako hauek dira: ordezkapen-arrazoiengatik taldekatutako gastua, 2023-2024 bilakaeraren konparazio-grafikoa eta organo judizialen araberako hileko gastuaren banakapena agertzen diren koadroa.

Salak aurreko komunikazioen berri izan du.

2.2.- ORDEZKO EPAILEEI ETA MAGISTRATUEI EGINDAKO DEIEN GAIKUNTZA-ESKAERAK, ONDORIO EKONOMIKOETARAKO, ORDAINSARIETARAKO ETA GIZARTE SEGURANTZARAKO.

2024/12/13an egindako osoko bilkuraren 2.2 erabakian erabakitakoa betez, epaileei, ordezkoei eta ordezeko magistratuei ordaindu beharreko deien berri eman zaio Salari, ebazteke dauden ebazpenak eman ditzaten. Hona hemen:

1) Barakaldoko epaitegietako magistratu dekanok egindako deia Susana Iñiguez Del Val ordezeko epaile andrearen alde, 2024ko ekainaren 12, 14 eta 17rako, 2024ko ekainaren 11n eta 13an egindako ikustaldietako ebazpenak eman ditzan. Hona hemen ebazpenak: 58/24 autoa, 2024/06/17koa, 104/24 EFM prozeduran emana; 46/24 epaia, 2024/06/17koa, 24/24 DVC prozeduran emandakoa; 50/24 epaia, 2024/06/18koa, 121/23 MHC prozeduran emandakoa; 49/24 epaia, 2024/06/18koa, 78/23 DVC prozeduran emandakoa, eta 48/24 zenbakiko epaia, 2024/06/17koa, 92/23 MHC prozeduran emandakoa. Horiek guztiak Barakaldoko Emakumearen aurkako indarkeriaren arloko 1 zk.ko epaitegiari dagozkio; ebazpen horiek eman izanaren ziurtagiria eransten da, organo horretarako 2024ko ekainaren 11 eta 13rako egindako deiaren ondoriozkoa.

Salak deia berrestea erabaki du, horren arrazoia ordainsari-ondorioak dituzten deiak egitea bidezkoa den kasuen artean dagoelako, Gobernu Sala honek 2023ko urriaren 27ko eta 2024ko martxoaren 31ko bilkuretan ezarritako irizpideen arabera.

Dei horrek egoera juridiko bakarra osatzen du epaiak eman aurreko jurisdikzio-jarduerak sortutakoarekin, eta, ordainketari dagokionez, ezin da bi dei autonomotan bereizi, horiek justifikatzen dituen arrazoia berbera baita.

2) Gasteizko epaitegietako magistratu dekanok egindako deia ordezeko epaile Natalia Vanegas Higuera andrearen alde, 2024ko uztailaren 5erako, 2024ko ekainaren 19an egindako ikustaldiaren ebazpena emateko: 277/2024 epaia, 2024ko uztailaren 5ekoa, 354/2023 OMM prozeduran emandakoa, Vitoria-Gasteizko Lehen Auzialdiko 4 zk.ko epaitegiari dagokiona, eta, horrekin batera, epaia eman izanaren ziurtagiria, 2024ko ekainaren 17, 18 eta 19rako organo horretarako egindako deiaren ondoriozkoa.

Salak deia berrestea erabaki du, horren arrazoia ordainsari-ondorioak dituzten deiak egitea bidezkoa den kasuen artean dagoelako, Gobernu Sala honek 2023ko urriaren 27ko eta 2024ko martxoaren 31ko bilkuretan ezarritako irizpideen arabera.

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikulua presako arrazoiei buruz ezarritakoarekin bat, Salak erabaki du Gasteizko epaile-magistratu dekanok egindako deia berrestea CRISTINA RODRIGUEZ RUIZek udalerrri horretako Emakumearen aurkako indarkeriaren arloko 1 zk.eko Epaitegian ordezkoko epaile gisa jardun dezan, magistratu titularrari XXXXX-gatiko baimena eman zaiolako 2024ko abenduaren 13rako.

Deia berretsi da gobernu-sala honek 2022ko abenduaren 16ko bileran ezarritako irizpideen arabera kanpo-ordezpenera jotzeko arrazoiaren artean dagoelako.

Erabaki honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako epe, modu eta arrazoiak aintzat hartuta.

Bidal bekio erabaki honen lekukotza epaile-magistratu dekanuari, 30 egunez iragarki-taulan argitara dadin.

Eman kontu Gobernu Salak egingo duen hurrengo bileran”.

3.- Bake-epaileei buruzkoa

3-1- PRESIDENTEAREN 2024KO AZAROAREN 21EKO ERABAKIA BERRESTEA BOTERE JUDIZIALAREN LEGE ORGANIKOAREN 160.7 ARTIKULUAREKIN BAT HARTUTAKOA, PREMIAZKO ARRAZOIENGATIK, BAKE-EPAITEGIAREN JURISDIKZIOA LUZATZEARI BURUZKOA DENA.

Salak aho batez erabaki du presidente jaunak 2024ko azaroaren 21ean hartutako erabakia berrestea, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluekin bat, presako arrazoiei dagokienez, honela dioena hitzez hitz:

"Galdakaoko Bake Epaitegiaren aurreko mezu elektronikoa jasotzat eman da, eta jakinarazi da bake-epaile titularra ezin dela Bake Epaitegira joan azaroaren 22an, eta ez duela ordezkotza bake-epailek; beraz, egun horretarako jurisdikzioa luzatzeko eskatzen du. Erregistratu bedi.

Galdakaoko Bake Epaitegiaren egoera ikusita, titularra bertaratu ezin denez eta ordezkotza bake-epailek ez dagoenez, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, presako arrazoiei dagokienez, Basauriko bake-epaile titularri, Ivan San Emeterio Perez, jurisdikzioa luzatzea erabaki da, azaroaren 22an, Galdakaoko Epaitegian bere eginkizunak bete ditzan.

Eman kontu Gobernu Salak egingo duen hurrengo bileran”.

3-2 - BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIKO BATZORDE IRAUNKORREKO LANGILE JUDIZIALEN ZERBITZUAK BIDALITAKO JAKINARAZPENAREN KONTU EMATEA, ZERBITZUAK EMATEA DELA-ETA SERGIO GARCIA PEREZEN ALDE DIETAK ETA JOAN-ETORRIEN GASTUAK JASOTZEARI BURUZKOA

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko langile judizialen zerbitzuak 2024ko azaroaren 19an igorritako komunikazioaren berri eman zaio Salari. Komunikazio hori Sergio Garcia Perezen alde, Leioako Bake Epaitegian emandako zerbitzuengatik dagozkion kalte-ordainen gaineko dietak eta lekualdatze-gastuak kobratzeari buruzkoa da, maiatzaren 24ko 462/2002 Errege Dekretuan aurreikusitakoaren arabera.

Sala jakinaren gainean dago.

4.- Diziplina-arloa

(Gairik gabe)

5.- Laguntza-neurriak eta jarraipena

5.1 MARTIN JOSE MINGORANCE GARCÍA JAUNAK JARRITAKO 0586/2024 GORA JOTZEKO ERREKURTSOA, GOBERNU SALAREN BATZORDEAK 2024KO AZAROAREN 27AN HARTUTAKO ERABAKIAREN AURKAKOA.

Martin Jose Mingorance Garciak Gobernu Salaren Batzordearen 2024ko azaroaren 27ko Erabakiaren aurka jarritako 586/2024 gora jotzeko errekurtsuari buruz presidenteak emandako txostenaren berri eman zaio Salari. Txostenak honako hau dio hitzez hitz:

"2024ko abenduaren 2an, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Kabinete Teknikoko Baliabideen Ataleko letradu buruaren jakinarazpena jaso da, Martín Jose Mingorance Garciak Gobernu Salaren Batzordearen 2024ko azaroaren 27ko Erabakiaren aurka jarritako 0586/2024 gora jotzeko errekurtsuari buruzko txostena bidaltzeko eskatuz.

Aldez aurretik, jakitera ematen da errekurritzen den Gobernu Salaren Batzorde Iraunkorraren erabakia BJLOren 216 bis artikuluan aurreikusitakoaren babesean formulatzen duen proposamena dela. Beraz, ez da ebazpen erabakitzailea, ezta izapide-egintza bat ere, gaiaren mamiaz zuzenean edo zeharka erabakitzen duena, prozedurarekin jarraitzeko ezintasuna zehazten duena, defentsa-gabezia eragiten duena edo eskubide edo interes legitimoen kalte konponezina eragiten duena. Azken egoera juridiko horiek dira, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. artikuluen arabera, izapide-egintza baten aurkako errekurtsoa jartzeko aukera ematen duten bakarrak.

Eskatutakoa betetz, jakinarazten da Batzordeak 2024ko azaroaren 27an egindako bileran hartutako erabakiaren bidez erabaki zela Leyre Perez Rodriguezen proposamena aurkeztea Donostiako Lan-arloko 5 zk.ko Epaitegirako funtzioak aldatutako zerbitzu-eginkizuna betetzeko.

Proposamenaren edukiari dagokionez, jakitera ematen dut Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Ikuskaritza Zerbitzuak bidalitako komunikazioaren berri eman zaiola Salari. Komunikazio horren bidez, Donostiako Lan-arloko 5 zk.ko Epaitegia indartzeko neurri bat hartzeko premiaren aldeko txostena eman da, eta Auzitegi Nagusiak Huelvako Lan-arloko 3 zk.ko Epaitegiko magistratu Martin Jose Mingorance Garcia jaunaren, alde proposatutako funtzioak aldatu gabeko zerbitzu eginkizunaren aurkako txostena eman du.

Era berean, Salari presidenteak 2024ko azaroaren 11n hartutako erabakiaren berri eman zaio, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluekin bat hartutakoa, premiazko arrazoiei dagokienez, eta honela dioena hitzez hitz:

"Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Ikuskaritza Zerbitzuak bidalitako komunikazioaren berri eman da. Komunikazio horren bidez, Donostiako Lan-arloko 5 zk.ko Epaitegia indartzeko neurri bat hartzeko premiaren aldeko txostena eman da, eta Auzitegi Nagusiak Huelvako Lan-arloko 3 zk.ko epaitegiko magistratu Martin Jose Mingorance Garcia jaunaren, alde proposatutako funtzioak aldatu gabeko zerbitzu eginkizunaren aurkako txostena eman du.

Botere Judizialaren Lege Organikoko 160.7 artikuluan ezarritakoarekin bat, presako arrazoiei dagokienez, kontuan hartuta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Ikuskaritza Zerbitzuaren aurreko txostenaren edukia, bai eta Donostiako dekanok 2024/09/03an egindako proposamena ere, honako hau erabaki da: Donostiako Lan Arloko 5 zk.ko Epaitegirako funtzioak aldatutako zerbitzu-eginkizun baterako deialdia egitea, jarraian zehaztuko diren baldintzen arabera.

Botere Judizialaren Lege Organikoko 216 bis artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, adierazitako laguntza judizialeko neurria Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari proposatzeko asmoz, **ERABAKI DA FUNTZIOAK ALDATUTAKO ZERBITZU-EGINKIZUN** bat eskaintzea Donostiako Lan-arloko 5 zk.ko Epaitegirako, oinarri hauen arabera:

Lehenengoa.- Eskaintzen den laguntza judizialeko neurriaren definizioa.

5-1 - Funtzioak aldatutako zerbitzu-eginkizuna, Donostiako Lan-arloko 5 zk.ko Epaitegirako

Bigarren.- Jarduera-plana.

Eginkizundunak asteen bi seinalamendu-egun egin beharko ditu, astelehena eta/edo osteguna eta/edo ostirala. Egun horiek aukeratzeko arrazoia judizio-aretoak eskura izatea da; izan ere, Justizia Jauregia prest dago egun horietan judizio-aretoak emateko.

Seinalamendu-egun bakoitzean 7 judizio egingo dira. Zerbitzu-eginkizunaren ardura izango diren prozedurak II. eta III. eranskinetan zehazten dira, eta egindako proposamenean jasotzen dira.

Hirugarrena.- Neurriaren iraupena.

Errefoztu-neurriaren hasierako iraupena 6 hilabetekoa izango da, urtarilaren 13aren astetik uztailaren 13aren astera.

Laugarrena.- Lehentasunezko egokitasun-irizpideak.

1. Eskatzaile bat baino gehiago egonez gero, gobernu-salak proposatuko ditu, lehentasunez, egokienak iruditzen zaizkionak, eta inguruabar hauek baloratuko ditu:

a) Epaile edo magistratu eskatzailea indartu beharreko epaitegi edo auzitegiaren jurisdikzio-ordena berekoa izatea. Lehentasuna emango zaio espezialitatea egiaztatzeari, eta, halakorik ezean, jurisdikzioan deialdi honen aurreko hamabi urteetan zortzi urte egon izanari, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 330.2 artikulua aurreikusi bezala.

b) Eskatzailearen destinoa non dagoen eta distantzia.

c) Titularra den organoaren egoera.

d) Eginkizuna zein autonomia-erkidegotan egingo den aintzat hartuta, bertako zuzenbidea edo hizkuntza eta zuzenbide substantiboa ezagutzea.

Aurreko irizpideen balorazioa batera egingo da, eta horiek azaltzeko jarraitu den ordenak ez du batzuen eta besteen arteko lehentasunik zehaztuko.

2. Aurreko inguruabarren baterako balorazioak eskatzaileen artean desberdintasun nabarmenik sortzen ez badu, beste inguruabar batzuk baloratu ahal izango dira, hala nola antzinatasun profesionala, neurriaren xede den izaera bereko edo antzeko organoetan jardutea, organoaren berezko gaietan edo organoaren egoerarako garrantzitsuagoak diren gaietan prestakuntza espezifikoa izatea, argitalpenak eta epaile magistratu laguntzaileak aztertu behar dituen gai eta auzigaiekin zerikusia duten beste merezimendu profesional batzuk. Familia-bizitza uztartzeari buruzko inguruabarrak ere kontuan hartu ahal izango dira.

Era berean, irizpide horien balorazioa batera egingo da, eta horiek azaltzeko jarraitu den ordenak ez du batzuen eta besteen arteko lehentasunik zehaztuko.

Bosgarrena.- Eskabideak formalizatzea: modua, tokia eta epea.

Interesa duten epaile eta magistratuek dagokion eskaera egin beharko dute gobernu-kudeaketako aplikazioaren bidez.

Eskabideak aurkezteko epea azaroaren 20an amaituko da.

Seigarrena. - Deialdiaren publizitatea.

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 216 bis 3.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrituz, eta 2007ko azaroaren 13ko Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Batzorde Iraunkorraren 69.2 erabakia betez, eskaintza hau argitara eman eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari bidali behar zaio horren kopia bat, bere webguneko epaile eta magistratuen extranetean sar dadin, 2007ko azaroaren 29ko Batzorde Iraunkorraren 30. erabakian aurreikusitako moduan.

Erabaki honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioke Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako epe, modu eta arrazoiak aintzat hartuta.

Jakinaraz bekio erabaki hau Donostiako epaile-magistratu dekanuari.

Eman kontu Gobernu Salak egingo duen hurrengo bileran”.

Lehendakariaren 2024ko azaroaren 11ko Erabakia betez, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluan, presako arrazoiak dagokienez, eta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 350.1 artikulua aplikatuz, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 26. bis 3.1 artikuluan aurreikusitako publizitatea egitea xedatu zen karrera judizialeko kideen artean, Donostiako Lan-arloko 5 zk.ko Epaitegirako funtzioak aldatutako zerbitzu-eginkizun baterako, 6 hilabeteko epe luzagarri baterako.

Zerbitzu-eginkizuna iragartzeko irekitako epea igarota, honako eskaera hauek jaso dira:

Lehentasunezko lege-irizpideak: 216 bis 3						
Eskatzailea	Jurisdikzioa	Lekua eta destinoa	Organoaren egoera			Hizkuntza/EAEko FZ
			2024ko 2. hiruhilekoa			
			Sartutakoak	Ebatziak	Izapidetzen	
LEYRE PEREZ RODRIGUEZ	Arlo zibila eta zigor-arloa	Gernika-Lumoko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 1 zk.ko Epaitegia	Arlo Zibila 130 Zigor-arloa 158 GUZTIRA: 288	Arlo Zibila 203 Zigor-arloa 127 GUZTIRA: 330	Arlo Zibila 627 Zigor-arloa 297 GUZTIRA: 924	Hizkuntza: Ez dago jasota EAEko FZ Bai
MARTIN JOSE MINGORANCE GARCIA	Lan-arloa	Huelvako Lan-arloko 3 zk.ko Epaitegia	323	218	1664	Hizkuntza: Ez dago jasota EAEko FZ Ez dago jasota
IBAI YERRO ARRIBILLAGA	Arlo zibila eta zigor-arloa	Tolosako Lehen auzialdiko eta Instrukzioko 3 zk.ko epaitegia	Arlo Zibila 91 Zigor-arloa 59	Arlo Zibila 164	Arlo Zibila 376	Hizkuntza: Bai EAEko FZ Bai

			GUZTIRA: 150	Zigor-arloa 77 GUZTIRA: 241	Zigor-arloa 507 GUZTIRA: 883	
LOURDES ARIAS VILUMBRALES	Arlo zibila eta zigor-arloa	Eibarko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 1 zk.ko Epaitegia	Arlo Zibila 290 Zigor-arloa 213 GUZTIRA: 503	Arlo Zibila 165 Zigor-arloa 42 GUZTIRA: 207	Arlo Zibila 824 Zigor-arloa 904 GUZTIRA: 1728	Hizkuntza: Ez dago jasota EAEko FZ Bai
1/2019 Jarraibideko irizpideak						
Eskatzailea	Eskalafoia	<i>Prestakuntza</i>	Antzeko organoetan jardutea	Argitalpenak	Kontziliazioa	Lan huta ord mel
LEYRE PEREZ RODRIGUEZ	4900	Ez dago jasota	Bilboko Lan-arloko 1 zk.ko Epaitegia	Ez dago jasota	Bai	
MARTIN JOSE MINGORANCE GARCIA	3501	Bai	Bai	Ez dago jasota	Ez dago jasota	
IBAI YERRO ARRIBILLAGA	509, epaileen kategoriakoak	Ez dago jasota	Ez dago jasota	Ez dago jasota	Ez dago jasota	
LOURDES ARIAS VILUMBRALES	4600	Ez dago jasota	Ez dago jasota	Ez dago jasota	Bai	

Salak aho batez erabaki du presidente jaunak 2024ko azaroaren 13an hartutako erabakia berrestea. Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikulua, presako arrazoiei dagokienez, eta eskaintzen den eginkizunean parte hartzeko eskatzen diren merezimenduak betetzen dituzten eskatzaileen inguruabarrak eztabaidatzeari ekin zaio, BJLOren 216 bis artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Irizpide horien arabera, Salak baloratzen du jurisdikzio-ordena bereko hautagai bakarra, Martin Jose Mingorancie Garcia jauna, bere jatorrizko organoan ebatzi gabeko auzi-kopuru esanguratsua duela, eta ebazten duen auzi-kopurua sartzen zaiona baino nabarmen txikiagoa dela. Horregatik, uste du ez dela egokia eskainitako zerbitzu-eginkizunerako proposatzea.

Gainerakoei erreparatuta, lege-irizpideei eta lan-arloko jurisdikzio-ordenako izangai gehigarriak ez dagoenez, bidezkoa da jatorrizko organo judizialaren egoera eta hizkuntza-ezagutzak eta foru-zuzenbidekoak haztatzea. Ikuspegi horretatik:

- Leyre Perez Rodriguez titularra den organoaren egoera egokia da, eta foru-zuzenbideari buruzko ezagutzak ditu.
- Ibai Yerro Arribillaga jaunari dagokionez, Salak baloratu du titularra den organoaren egoera zuzena dela eta foru-zuzenbideari eta autonomia-erkidegoko berezko hizkuntzari buruzko ezagutzak dituela.
- Lourdes Arias Vilumbrales andreari dagokionez, titularra den organoaren egoera Leyre Perez Rodriguez andrea eta Ibai Yerro jauna titular diren organoetan baino okerragoa dela baloratzen da; izan ere, ebazpen maila nabarmen txikiagoa du eta foru-zuzenbideari buruzko ezagutzak ditu.

Horiek horrela, Salaren ustez lehentasunezko hautagaiak Leyre Perez Rodriguez eta Ibai Yerro dira. Legezko irizpideak kontuan hartuta, aipatutako bi hautagaietako bat ere ez denez nabarmentzen, Jarraibidean ezarritako irizpide osagarrietara jotzen da, eta horien arabera, Leyre Perez Rodriguez andreak antzinatasun handiagoa du eskalafoian, eta jurisdikzio-eginkizunak bete ditu antzeko organoetan. Horregatik, Salak, aho batez, honako hau proposatu du eginkizunerako: Leyre Perez Rodriguez.

Salak erabaki du Leyre Perez Rodriguezen aldeko proposamena Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari aurkeztea, Donostiako Lan-arloko 5 zk.ko Epaitegrako funtzioak aldatutako zerbitzu-eginkizuna betetzeko.

Jakinaraz biek erabaki hau Donostiako epaile dekanuari, proposatutako magistratuari eta eskaria onartu ez zaion eskatzaileei.

Gobernu Salak aho batez erabaki du, Auzitegi Nagusiko presidenteak emandako txostenarekin bat etorritik, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari bidaltzea jarritako errekurtsua, erantsitako dokumentazioarekin batera, eta Auzitegi Nagusiko Gobernu Salak 2024ko azaroaren 22an egindako Batzordean erabakitakoa erabat berrestea.

5.2 XXX K AURKEZTUTAKO ESKAERA, BATZORDEAK 2024/11/22AN EGINDAKO BILERAREN 5.1 ERABAKIARI BURUZKOA.

XXX Eibarko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 1 zk.ko Epaitegiko magistratu titullarrak aurkeztutako idazkiaren berri eman zaio Salari, eta honela dio hitzez hitz:

"EIBARKO LEHEN AUZIALDIKO ETA INSTRUKZIOKO 1 ZK.KO EPAITEGIKO LAEri jakinarazi zaio DONOSTIAKO LAN ARLOKO 5 ZK.KO EPAITEGIAN FUNTZIOAK ALDATUTAKO ZERBITZU-EGINKIZUNA ebazteko kontuan hartu diren datuak 2024ko

hirugarren hiruhilekoari dagozkionak direla, eta ez 2024ko bigarren hiruhilekoari dagozkionak. Organo honi dagozkion zerbitzu-eginkizuna ebatzeko kontuan hartu diren datuak okerrak izan direla ikusi denez, honen bidez EIBARKO LEHEN AUZIALDIKO ETA INSTRUKZIOKO 1 ZK.KO EPAITEGIKO LAEak emandako ziurtagiria bidaltzen dizut, hirugarren hiruhilekoko datuak zuzenduta (estatistikek akatsak eragiten zituzten urte honetako lehen hiruhilekotik, eta horietan ez dira jakinarazi instrukzioan emandako ebazpen gehienak, ez eta arlo zibilean emandakoak ere).

Nolanahi ere, 2024ko hirugarren hiruhilekoko datu zuzenei dagokienez, 2024ko eta aurreko urteetako gainerako hiruhilekoetako datu errealak baino dezente txikiagoak direla adierazi behar da; izan ere, aldi horretan ezkontzagaritako lizentzia-egoeran egon naiz (2024ko uztailaren 11tik 2024ko abuztuaren 4ra), oporretan eta elkartrukean bi astez (azken bi egoera horiek 2024ko irailaren 1etik 2024ko urriaren 14ra bitartekoak dira) egon naiz. Beraz, aldi horietako gehienak ez direnez kanpoko ordezkoezin estali, ez da eman justifikatutako absentsia-egoeran ez nagoenean ematen diren beste ebazpen. Bestalde, datu zuzenek kontuan hartzen dituzte, halaber, 2023ko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitartean bere eginkizunak bete zituen ordezko epaileak ebatzi gabe utzitako epaiak (azken horrek, gainera, organoaren auzi zibil eta penal gehienak izapidetu gabe utzi zituen, eta horietaz ni arduratu behar izan nintzen, nire ahalein arabera, ez baita organoarentzako inolako errefortzurik onartu).

Azaldutako guztia ikusita, lehen aipatutako zerbitzu-eginkizuna niri ukatzeko kontuan hartu zen gaia organoaren ebatze-maila nabarmen txikiagoa eta haren egoera okerragoa izan zela adierazi zen. Baina egia esan, datu zuzenen arabera, ebatze-maila hirugarren hiruhilekoan 345 auzigaiak da – beraz, gainerako organoena baino handiagoa –, lehen adierazitako inguruabarrak gorabehera, eta ebatzi gabeko auzigai-kopurua erabakia hartzerakoan kontuan hartutakoa baino askoz ere txikiagoa da, nahiz eta gainerako izangaiek zerbitzatzen dituzten organoetan baino auzigai-kopuru bikoitza sartu (– hirukoitza baino gehiago kasu batean –). Horrez gain, kontuan hartu behar da eskalafoian gainerako izangaiek baino antzintasun handiagoa dudala, nire destinoa zerbitzu-eginkizuna eskaintzen den epaitegitik gertuago dagoela, beste hautagai bati dagokionez izan ezik, euskal foru-zuzenbidearen meritua dudala eta zerbitzu-eginkizuna beharrezkoa zaidala nire lan-egoera eta familiakoa uztartu ahal izateko, XXXXXXgatik. Izan ere, uztartze hori oso zaila da titularren artean ordezkatu behar garen bi organoko barruti judizial batean, justifikatutako absentsia kasu askotarako kanpoko ordezkorik izendatzen ez delako. Ezin dut destino-aldaketa probintziazatik kanporako eskatu, nire senarraren gaixotasunak lekualdaketa fisikoa eragozten diolako. Hori dela-eta, ESKATZEN DUT DONOSTIAKO LAN-ARLOKO 5 ZK.KO EPAITEGIRAKO FUNTZIOAK ALDATUTAKO EGINKIZUNARI buruz 2024ko azaroaren 22an egindako GOBERNU-SALAREN bileran hartutako erabakia berriaz aztertzeke.

Zuen berrien zain geratzen naiz, "

Sala jakinaren gainean dago eta bere gain hartu du BJKNren hiruhileko estatistika-buletinen estatistika egitean akatsak gertatu direla. Hirugarren hiruhilekoari dagozkion datuen arabera, arlo zibilean 180 auzigai ebatzi dira, 165 ebatzi beharrean, eta zigor-arloan 151 ebatzi dira, 42ren ordeiz; beraz, guztira 331 auzigai ebatzi dira, 207 ebatzi beharrean. Zigor-arloan 580 auzigai ebatzi gabe daude, eta ez 904; beraz, guztira 1404 auzigai daude ebatzi gabe, eta ez 1726.

Eztabaidatu ondoren, eta kontuan hartuta ezen, egindako zuzenketa ondoren, Donostiako Lan-arloko 5 zk.ko Epaitegirako funtzioak aldatutako zerbitzu-eginkizuna betetzeko hautagaiaren organoak Eibarko Lehen Auzialdiko

eta Instrukzioko 1 zk.ko Epaitegiak baino egoera hobe duela, Gobernu Sala honetako Batzordearen 2024ko azaroaren 27ko Erabakian jasotako izangaiaren proposamenari eustea erabaki du Salak.

6.- Bestelako gaiak

6.1 BILBOKO MERKATARITZA ARLOKO 3 ZK.KO EPAITEGIAREN EGOITZA GETXOTIK BILBORA LEKUALDATZEKO ESKAERA

Salari jakinarazi zaio Bilboko Merkataritza-arloko 3 zk.ko Epaitegiko magistratu titularrak bidalitako idazkia, epaitegi horren egoitza lekuz aldatzeko eskatuz. Honako hau dio hitzez hitz:

"Merkataritza-arloko epaitegi hau eratu zenetik, Getxoko udalerrian du egoitza.

Hainbat idazki eta telefono-elkarrizketa izan dira, eta behin eta berriz eskatu da horiek Bilbora lekualdatzeko.

Eskaera hori egitate hauetan oinarritu zen:

.- Ez du inolako zentzurik organo judizial hau (Bizkaia osoan jurisdikzioa du, eta urtebete eta erdi baino gehiago darama eskumen eskusibo eta baztertzailarekin probintzia horretako pertsona fisiko enpresarioen eta ez-enpresarioen hartzekodunen lehiaketan arloan) Bilboko beste bi merkataritza-epaitegietatik bereizita egoteak.

.- Profesional askok eta jendeak, oro har, ez daki non dagoen.

.- Leku nahikoa dago (Ministerio Fiskala bere bulego berrietara eraman ondoren) Bilbon kokatzeko.

.- Justizia-eraikin berria birmoldatzeko obrak (bertan kokatuko dira, besteak beste, merkataritza-arloko hiru epaitegiak) nabarmen atzeratzen ari dira, eta ez dakigu noiz amaituko diren.

.- Probintzia-eremuk arazoak konpontzeko Getxora joan behar dutenean profesionalei eta justiziapekoiei eragiten zaien kaltea.

.- Organo judizial honek merkataritza-arloko gainerako epaitegien espazio fisiko bera izan behar du, jurisdikzio-ordena desberdinetako gainerako epaitegiekin gertatzen den bezala.

Horiek horrela, eta azaldutakoa kontuan hartuta, ESKATZEN DUT: Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu Salak beharrezko neurriak har ditzala, merkataritza-arloko epaitegi hau behin betiko eraman dadin Bilboko edozein bulego judizialetara.

Salak erabaki du Bilboko Merkataritza-arloko 3 zk.ko Epaitegiko magistratu titularrari honako honen berri ematea: Gobernu Sala honen Osoko Bilkurak 2024ko abenduaren 13an hartutako erabakiaren arabera, Gobernu Sala honen helburua da eraikin jasagarri eta irisgarriaren Planaren exekuzioaren jarraipena

egitea, aipamen berezia eginez Barroetako Jauregian unitate judizialak garatzeko proposamenei, Buenos Airesko eraikina zigor-ordenarako egokitzeari eta Mapfre eraikinaren exekuzioaren jarraipenari. Beraz, eremu horren barruan zure eskaera aztertuko da.

6-2.- BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIKO IKUSKARITZA ZERBITZUAREN JAKINARAZPENAREN BERRI EMATEA, ZEINA 3324/2024 JARRAIPEN-ESPEDIENTE HASTEARI BURUZKOA BAITA.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Ikuskaritza Zerbitzuak bidalitako komunikazioaren berri eman zaio Salari. Komunikazio horretan adierazten denez, 2024ko lehen seihilekoan egindako ikuskapen birtualaren ondorioz, 3324/2024 zk.ko jarraipen-espedientea hastea onartu zen, XXXXXXXX magistratu titularrak eman gabe dituen azken ebazpenak kontrolatzeko.

6-3 - BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIKO IKUSKARITZA ZERBITZUAREN JAKINARAZPENAREN BERRI EMATEA, ZEINA 3325/2024 JARRAIPEN-ESPEDIENTE HASTEARI BURUZKOA BAITA.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Ikuskaritza Zerbitzuak bidalitako komunikazioaren berri eman zaio Salari. Komunikazio horretan adierazten denez, 2024ko lehen seihilekoan egindako ikuskapen birtualaren ondorioz, 3325/2024 zk.ko jarraipen-espedientea hastea onartu zen, XXXXXXXX magistratu titularrak eman gabe dituen azken ebazpenak kontrolatzeko.

6-4.- BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIKO IKUSKARITZA ZERBITZUAREN JAKINARAZPENAREN BERRI EMATEA, 3704/22 JARRAIPEN-ESPEDIENTEA MANTENDU ETA ZABALTZEARI BURUZKOA.

Salari Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Ikuskapen Zerbitzuak bidalitako jakinarazpenaren berri eman zaio. Bertan jakinarazi du, 2024/11/18an egindako ikuskapen birtualaren ondorioz, 945/22 zk.ko jarraipen-espedienteari eustea erabaki dela, XXXXXk eman gabe dituen azken ebazpenen gaineko kontrola handitzeko.

6-5 - BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIAREN IKUSKAPEN-ZERBITZUKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN UNITATEAREN JAKINARAZPENAREN BERRI EMATEA, GASTEIZKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN 2 ZK.KO

EPAITEGIRA EGINDAKO OHIKO IKUSKAPEN-BISITARI BURUZKOA.

Sala jakitun dago Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Ikuskapen Zerbitzuak bidalitako komunikazioaz, eta, horrekin batera bidalitako Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 2 zk.ko Epaitegira 2024ko urriaren 16an egindako ikuskapen-bisitaren txostenaz.

6-6 - BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIAREN IKUSKAPEN-ZERBITZUKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN UNITATEAREN JAKINARAZPENAREN BERRI EMATEA, GASTEIZKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN 3 ZK.KO EPAITEGIRA EGINDAKO OHIKO IKUSKAPEN-BISITARI BURUZKOA.

Sala jakitun dago Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Ikuskapen Zerbitzuak bidalitako komunikazioaz, eta, horrekin batera bidalitako Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 3 zk.ko Epaitegira 2024ko urriaren 17an egindako ikuskapen-bisitaren txostenaz.

6-7 - BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIAREN IKUSKARITZA ZERBITZUKO UNITATE PENALAREN JAKINARAZPENAREN BERRI EMATEA, BILBOKO INSTRUKZIOKO 8 ZK.KO EPAITEGIRA EGINDAKO OHIKO IKUSKAPEN-BISITARI BURUZKOA.

Sala jakitun dago Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Ikuskapen Zerbitzuak bidalitako komunikazioaz, eta, horrekin batera bidalitako Bilboko Instrukzioko 8 zk.ko Epaitegira 2024ko irailaren 30ean egindako ikuskapen-bisitaren txostenaz.

6-8 - BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIAREN IKUSKARITZA ZERBITZUKO UNITATE PENALAREN JAKINARAZPENAREN BERRI EMATEA, BILBOKO ZIGOR-ARLOKO 6 ZK.KO EPAITEGIRA EGINDAKO OHIKO IKUSKAPEN-BISITARI BURUZKOA.

Sala jakitun dago Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Ikuskapen Zerbitzuak bidalitako komunikazioaz, eta, horrekin batera bidalitako Bilboko Zigor-arloko 6 zk.ko Epaitegira 2024ko urriaren 3an egindako ikuskapen-bisitaren txostenaz.

6-9 - BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIAREN IKUSKARITZA ZERBITZUKO UNITATE PENALAREN JAKINARAZPENAREN BERRI EMATEA, BILBOKO ZIGOR-ARLOKO 7 ZK.KO EPAITEGIRA EGINDAKO OHIKO IKUSKAPEN-BISITARI BURUZKOA.

Sala jakitun dago Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Ikuskapen Zerbitzuak bidalitako komunikazioaz, eta, horrekin batera bidalitako Bilboko Zigor-arloko 7 zk.ko Epaitegira 2024ko urriaren 2 eta 3an egindako ikuskapen-bisitaren txostenaz.

6-10 - BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIAREN BATZORDE IRAUNKORRAREN 2024/12/17KO AKORDIOAREN BERRI EMATEA, LURRALDE-ESKUMENA MODU ESKLUSIBOAN ETA BAZTERTZAILEAN ESLEITUZ, MAILEGU-HARTZAILEA PERTSONA FISIKO BAT DUTEN HIGIEZINEN BERME ERREALAK DITUZTEN FINANTZAKETA-KONTRATUETAN JASOTAKO BALDINTZA OROKORREI BURUZKO BANAKAKO EKINTZEI DAGOKIENEZ

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Batzorde Iraunkorraren 2024/12/17ko Erabakiaren berri eman zaio Salari. Erabaki horren bidez, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 98.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, lurralde-eskumena modu eskusiboan eta baztertzailean esleitzen zaie Euskal Autonomia Erkidegoko epaitegi hauei, urtarilaren 1etik abenduaren 31ra arteko epealdirako, mailegu-hartzailea pertsona fisikoa den higiezin berme errealekin egindako finantzaketa-kontratuetan jasotako baldintza orokorre buruzko banakako akzioei dagokienez: Gasteizko Lehen Auzialdiko 5 zk.ko Epaitegia, Donostiako Lehen Auzialdiko 8 zk.ko Epaitegia eta Bilboko Lehen Auzialdiko 15 zk.ko Epaitegia.

Sala jakinaren gainean dago.

6-11 - BILBOKO DEKANO JAUNAREN 2024KO AZAROAREN 20KO ERABAKIAREN BERRI EMATEA, INDARKERIAREN ARLOKO EPAITEGIEI BURUZKO ERREPORTAJEA EGITEKO ESKAERARI BURUZKOA

Salari jakinarazi zaio Bilboko dekanok hartutako erabakia, 2024ko azaroaren 20koa, koru judizialak aurkeztutako eskaerari buruzkoa. Honela dio, hitzez hitz:

"LEHENENGOA.- Bilboko Indarkeriaren arloko 1 zk.ko Epaitegiko magistratu titularrak jakinarazten du Diario el Correo egunkariko kazetari XXX jaunak erreportaje bat egingo duela bihar, 2024ko azaroaren 21ean, indarkeriaren arloko epaitegien egunerokotasunari buruz, bai eta elkarriketa bat ere. Instalazioetan argazkiren bat egiteko baimena eskatzen du.

BIGARRENA.- Ekitaldi judizialean judizio-aretoak ez diren instalazio judizialak erabiltzeko, gobernu-kargu jakin batzuen baimen-araubidea bete behar da, Justizia Jauregia

okupatzen duten organo judizialen arabera. Kasu honetan, Bilboko Buenos Airesko Justizia Jauregian irudiak hartzeko eskatzen da, bertan baitaude Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegiak. Horri dagokionez, epaile dekanoei erabaki-ahalmenak esleitzen zaizkie BJLOren 168.1 artikuluan eta Auzitegietaiko Gobernu Organoen 1/2000 Erregelamenduaren 84 eta 86 g) artikuluetan, lokal judizialak behar bezala erabiltzeari begira.

Ondorioz, Justizia Jauregi horretan irudiak eskuratu eta hartu ahal izateko, Bilboko epaile dekanoreen baimena behar dela ondorioztatu behar da.

HIRUGARRENA.- Egindako eskaera aztertuta, eskatutako baimena ematen da, eta zehazten da irudiak hartzean saihestu egin beharko dela grabatuak izateko edo argazkiak ateratzeko berariazko baimena ematen ez duten pertsonen irudiak grabatu eta erabiltzea.

Horregatik guztiagatik, honako hau **ERABAKI DUT**:

1.- Baimena ematea Diario El Correo egunkariako XXXXXXXXX kazetariari, Bilboko Buenos Aires kaleko Justizia Jauregian Emakumearen aurkako indarkeriaren arloko epaitegieta irudiak hartzeko, 2024ko azaroaren 21ean. Grabatzeko edo argazkiak ateratzeko berariazko baimenik ematen ez duten pertsonen irudiak grabatzea eta erabiltzea saihestu beharko da.

2.- Jakinaraz bekio erabaki hau Bilboko justizia-jauregietaiko segurtasun-ordezkaritari, sartzen utz diezaion, eskaera helarazi duen magistratuari, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu Salari ere. "

6-12 GASTEIZKO DEKANOAREN 2024KO AZAROAREN 22KO ERABAKIAREN BERRI EMATEA, KORU JUDIZIALAK AURKEZTUTAKO ESKAERARI BURUZKOA

Salari jakinarazi zaio Gasteizko dekanok hartutako erabakia, 2024ko azaroaren 22koa, koru judizialak aurkeztutako eskaerari buruzkoa. Honela dio, hitzez hitz:

"Arabako Koru Judizialak 2024/12/18an Gasteizko Justizia Jauregi hallean entzunaldia egiteari buruz aurkeztutako idazkia jasotzat hartzen da, bai eta entzunaldia baino lehen Ezkontza Aretoan entsegua egiteko eskaera ere. Erants bedi eta eman bekio horren berri Arabako EATko zuzendari arduradunari, eta bete bedi EAEko Auzitegi Nagusiko Gobernu Salaren 2000ko uztailako 1eko erabakia, Auzitegietaiko Gobernu Organoen uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 4.º artikuluekin bat etorritz.

Erabaki hau Arabako EATko arduradunari eta Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkaritzari jakinarazi behar zaie, dagozkion ondorioetarako. "

6-13 - 4/2024 ZENBAKIKO ZIRKULARRAREN BERRI EMATEA, 2024-2025 EGUBERRIETAN KOMUNIKAZIO-EGINTZAK BITARTEKO TELEMATIKOEN BIDEZ EGITEARI BURUZKOA.

4/2024 Zirkularraren berri eman zaio Salari. Horren helburua da bulego judizialentzat 2024ko abenduaren 24tik 2025eko urtarrilaren 6ra bitartean sortutako jakinarazpenen bidalketa telematikoen mailakatzea ezartzea, hurrengo

hiru egun baliodunetan (2025eko urtarrilaren 7, 8 eta 9an), eta argitzea zer jarraibide bete behar diren legedi prozesalaren arabera 2024ko abenduko eta 2025eko urtarrileko egun baliogabeetan egin behar diren jakinarazpenak burutzeko..

ERABAKIAK JAKINARAZTEA.

Salak aho batez erabaki du bilera honetan hartutako erabakiak interesdun guztiei jakinaraztea.

Aztergai gehiagorik egon ez denez, bilera amaitutzat eman da, zeina 10:30ean hasi eta 12:00etan amaitu baita, eta akta hau egiten da, presidenteak sinatuta. Fede ematen dut.